

Nicée - Constantinople Sinboloa

Sinesten dut Jaungoiko bat bakarra
Aita guziz ahaltsu, zeru lurren Egile,
ageri eta ez diren guziena,
Sinesten dut Jaun bat bakarra, Jesu kristo,
Jainko seme bakar, mende guziak
baino lehen Aita ganik sortua,
Jainkoa ganik Jainko, argitik argi
egiazko Jainkoa ganik egiazko Jainko.
Sortua, ez egina, Aitaren izaite berekoa, Haren,
bidez dira eginak gauza guziak.
Gu gizonen gatik eta gu salbatzeko, jautsi zen zerutik.
Eta izpiritu Sainduaren egitez, Maria Birjina ganik
gorputz harturik, gizon egin zen.
Pontzio Pilatoren menpean gu gatik
gurutzeratua izan zen, oinazetan hila eta hobiratua.
Hirugarren egunean piztu zen, Liburu Sainduak
erran bezala, zerura igan eta Aitaren eskuin aldean
jarririk dago.
Aintzaz etorriko da berriz, biziak eta hilak jujatzera,
eta haren erregetzak ez du azkenik izanen.
Sinesten dut Izpiritu Saindua, Jaun eta bizi emaille,
Aita ganik eta Semea ganik dena.
Aitarekin eta Semearekin batean, agur eta
goresmen berbera hartzen duena, eta Profeten
ahoz hitz egin zuena.
Sinesten dut Eliza :
bat, saindu, katoliko eta Apostoluena
aitortzen dut bataio bakarra, bekatuak barkatzeko.
Igurikatzen dut hilen piztea,
eta datorren munduko bizia.
Amen



EUKARIZTIA




**Eukariztia hobeki bi-
zitzeko, hobeki ulertu**

Haurren liburuska

Liturgiako gauzak

- Tabernaklea 0
- Zerbitzu - mahaia 0
- Estola 0
- Eliz-kapa 0
- Alba 0
- Predikutegia 0
- Aldareko liburua 0
- Aldarea 0
- Ontzitxoak 0
- Kalitza 0
- Ostia-pekoka 0
- Ostia-ontzia 0
- Esku-oihala 0
- Xuka-oihala 0
- Kalitza-pekoka 0
- Kalitza-estalgia 0
- Kalitza-oihala 0
- Gisentsu-ontzia 0
- Iruzki saindua 0



Liturgiaren Eukaristia

Konsekrazionea



« Hau da ene
gorputza
zuentzat
emana de-
na... »



« hau da ene
odolaren kalit-
za zuentzat
ixuria »

**Ogi eta arno horiekin,
Jesusek izaite osoa
eskaintzen dauku**



Komunionea



Komunioan
_____ ukaiten dut.



Jesus ene baitan
dut, ixilik egoiten
naiz sinesten dut,
adoratzen dut,
maitatzen dut, es-
kertzen dut

Igortzea



« Zoazte Jaunaren
bakean »

**« Eskerrak
Jainkoari »**

Mezaren segitzera ahalegintzen naiz

Eukariztiaren liturgia

Ofertorioa




Benedikatua zu, Jauna, zeru lurren Jaungoikoa zure esku zabaletik hartu dugu orai ekarri dautzugun ogi hau lurraren indarrak eta gizonaren lanak sortua. Benedikatua zu, Jauna, Zeru lurren Jaungoikoa zure esku zabaletik hartu dugu orai ekarri dautzugun arno hau mahats ondoaren indarrak eta gizonaren lanak sortua..

Ogi eta arnoa
dira oraino

Biltzea



Jainko hitzaren liturgia



Mezako lau zatiak

1 – Elgarretaratzea/ Meza haste :



Kurutze seinalea
Herriari agurra
Bekatuen urrikia
Aintza
Otoitza

2 - Jainkoaren Hitza :



Irakurketak
Predikua
Fedearen aitormena
Fededunen otoitza

3 - Eukariztiaren liturgia :



Eskaintzen ekartzea : Ofertorioa

Konsekrazioa
Komunionea- Esker onezko otoitza
Azken otoitza

4 - : Meza bururatzea :




Benedikzioea
Igortzea



1– Meza haste

Kurutze seinalea



« Aitaren eta Semearen eta Izpiritu Sainduaren izenean ».

Kurutze seinalea egin eta ihardesten dugu. AMEN

Herriari agurra

« Jesukristo gure Jaunaren grazia, eta Jainko Aitaren maitasuna eta Izpiritu Sainduaren batasuna izan bedi zuekin »

«Eta zure Izpirituarekin»



AINTZA ZERUETAN JAUNGOIKOARI,

Eta bakea lurrean haren gogoko gizoneri.
Hain handi eta eder zaitugulakotz, gora zu benedikatua zu.
Gorespen zuri, ahuspez agur, eskerrak zuri.
Jainko Jauna, zeruko Errege,
Jaungoiko Aita guziahalduna.
Jauna, Seme bakar, Jesu Kristo.
Jainko Jauna, Jainkoaren bildots, Aitaren Seme.
Zuk kentzen duzu munduko bekatua,
Urrikal Jauna.
Zuk kentzen duzu munduko bekatua,
Entzun gure deia.
Aitaren eskuin aldean jarririk zaude zu,
Urrikal Jauna.
Zu bakarrik Saindua,
Zu bakarrik Goi-goikoa, Jesu Kristo,
Izpiritu Sainduarekin, Jainko Aitaren argitan. AMEN



APOSTOLUEN SINBOLOA

Sinesten dut, Jainko Aita botere guzia baitan, zeruaren eta lurraren kreatorrean.
Eta Jesu Kristo haren seme bakar, gure Jauna baitan, zoin kontzebitu baitzen Izpiritu Sainduaren bertutez, sortu zen Maria Birjina ganik, pairatu zuen Pontzio Pilatusen manuaren azpian, kurutzefikatu zuten, hil zen eta ehortzi zuten, jautsi zen ifernuetara, hirugarren egunean jeiki zen bizirik hilen artetik, igan zen zeruetara, jarria dago Jainko Aita botere guziaren eskuinean, handik etorriko da bizien eta hilen jujatzera.
Sinesten dut Izpiritu Saindua baitan, Eliza katoliko sainduan, sainduen partaliertasunean, bekatuen barkamenduan, haragiaren piztean, beti iraunen duen bizitzean. Amen





4 - Igortzea

Benedikzioea

« Jauna zuekin »

« Eta zure Izpirituarekin ».

« Benedika zaitzatela Jainko guzaldunak

Aitak eta Semeak eta Izpiritu Sainduak ».

Kurutze seinalea egiten dugu eta ihardesten
dugu : « AMEN ».



Igortzea

Apezak igortzen gaitu bozkarioz beterik

« Zoazte Kristoren bakean ».

« Eskerrak Jainkoari ».



Bekatuen urrikia



Aitortzen diot, Jainko guziz ahaltsuari
eta zueri ere bai ene haurrideri
bekatu egin dutala, gogoeta, hitz eta egitez,
eta egin beharrak ez eginez,
bai bekatore naiz.
Horrengatik eskatzen diotet
Andredena Maria beti Birjinari,
Aingeru eta Saindu guziera,
eta zueri ere bai, nere haurrideri,
otoitz egin dezozuen nere alde
Jainko gure Jaunari



« Urrikal, Jauna,
Kristo, urrikal,
Urrikal, Jauna,»

Aintza

Garizumaz salbu


« Aintza zeruetan
Jaungoikoari
eta bakea lurrean
haren gogoko
gizoneri »



ikus 17.orrian testu osoa

Otoitza

Amen!



2-Jainko Hitzaren Liturgia

Irakurketak

Mezan giristinoek Jainko hitza entzuten dute
jainkoak hitz egiten baitigu,
Gauregun ere bali da,


✠ Lehen irakurgaia

Usaian, Testamendu Zaharreko zati bat irakurtzen da Berri onari lotua dena, (salbu Pazko garaian)

Irakurleak erraiten du : **»Jaunak errana»**
« Eskerrak zuri Jauna »



✠ Salmoa



Lehen irakurketaren ondotik, denek Bibliako otoitz eder bat kantatzen dugu.
Jesusek salmoak erabili ditu otoitz egiteko.



✠ Bigarren irakurgaia

Paulo, Petri, Jakobe edo Joanes apostoluek lehen giristinoer idatzi gutuna irakurtzen da.

✠ Alleluia



Hebraieratik datorren hitz honek erran nahi du **» Jainkoa lauda ! Goraipa ezazue ! »** beraz kantatzen dugu Jainkoaren hitzaren gorai-patzeko (*Garizumaz salbu*)

Esker onaren unea

Komunionearen ondotik, ixiltasunean egoiten da eta Jauna eskertzen.



A . D . O . R . A .



Jesus maite nauzula
sinesten dut eta nik ere
maitatu nahi zaitut ♥
-tik lasai egoiten naiz
zure amodioa
nere ♥
-ean eman dezadazun,
Jesus, ene beharriek ez
zaituzte entzuten ♥
bainan ixilik nago ene ♥
-ean, uler dezadan nahi
duzuna.

Komunione ondoko otoitza

Aldatzen da mezen arabera. Ihardesten dugu :

Amen!

Komunionea



« Huna hemen Jainkoaren bildotsa huna hemen munduko bekatua kentzen duena, zoriontsuak hunen mahainera deituak »

« Jauna ez naiz on zu nere etxean sartzeko
Bainan errazu hitz bat eta sendatuko naiz »



Sinesten dut :

*Jesus hartzen dut
ostiaren itxuran.*

« Kristoren gorputza »



Amen!



✠ Berriona Edo Ebanjelioa



- « Jauna zuekin »

« eta zure izpirituarekin »

- « Jesukristoren ebanjelioa
San ... Liburutik »

« Aintza zuri Jauna »



- « Jaunak errana. »

« Eskerrak zuri Jauna »

Predikua

Apezak Jainkoaren hitzaz azalpenak emaiten
ditu eta egunero obratzera gomitutzen gaitu.

Fedearen aitormena : Sinesten dut

hautatzen
17eta 20.Or. artean



Fededunen otoitza



Jende guzien otoitza. Lelo bat kantatzen dugu denek elgarrekin. Kris-
toren otoitzarekin Aitari gure galdeak helarazten dizkiogu.



Eukariztiaren Liturgia

Eskaintzak edo ofertorioa

Eskaintzen ekartzea



Dizipuluek Pazkoko mahaina prestatu duten bezala, ogia eta arnoa aldare gainera ekartzen dira. Jainkoak eman biziaren fruituen itxurak dira.

« Benedikatua zu, Jauna,
Zeru lurren Jaungoikoa :
Zure esku zabaletik hartu dugu
Orai ekarri dizugun ogi hau,
Lurraren indarrak eta gizonaren
lanak sortua :
Hauxe eginen zaigu biziaren ogi. »

« Benedikatua zu, Jauna,
orai eta beti.»

« Benedikatua zu, Jauna, Zeru lurren
Jaungoikoa
Zure esku zabaletik hartu dugu
Orai ikarri dizugun arno hau,
Mahats ondoaren indarrak
Eta gizonaren lanak sortua,
Hauxe eginen zaigu betiko zorionaren
edari »

« Benedikatua zu, Jauna,
orai eta beti»

Arnoari ixuri ur xortak gu guziak itxuratzen gaitu



GURE AITA



Gure Aita, zeruetan zirena :
saindu izan bedi zure izena,
etor bedi zure erreinua,
egin bedi zure nahia
zeruan bezala lurrean ere.
Emaguzu gaur egun huntako ogia ;
barkatu gure zorrak,
guk ere gure zorduner
barkatzen diegunaz geroz
ez gaitzazula utz tentaldian
erortzen
bainan atera gaitzazu gaitzetik.



Bake Jestua

« Jaunaren bakea beti zuekin »

"Eta zure izpirituarekin"




Jestu hori egin dezaket lasaiki Jesusen bakea emaiten baitut.

Jainkoaren Bildotsa

« Jainkoaren bildotsa,
Zuk kentzen duzu munduko
bekatua
Urrikal Jauna


.....Emaguzu bakea »

Jondoni Batistak
« Jainkoaren bildotxa » deit-
zen zuen JESUS. Bere bizia
emaiten du gizon guzien sal-
batzeko esklabotza guzietarik.





**Gurutzean bezala Jesusek Aitari
Bere buruc eskaintzen dio**



Apezak ostia eta kalitza altxatzen ditu erranez :

**« Hunen bitartez, Hunekin eta Hunetan,
Zuri, Jainko Aita guziahaldunari,
Izpiritu Sainduarekin batean,
ospe eta Aintza guzia,
gizaldi eta gizaldi guzietan »**

Amen!



Eskuen garbitzea

“ Garbi nezazu, Jauna, nere gaixtakerietarik , eta ken nere bekatua” !

Eskaintzetaz Otoitza



«Haurrideak, egin dezagun otoitz guziek
batean, Eliza osoaren oparia , Jaungoikoari
eskaintzerakoan »

« Jainkoa goresteko eta
gizona salbatzeko »

Meza Jesusi egin otoitzik ederrena da, ez da deus garantzitsuagorik,

Esker onezko otoitza



« Jauna zuekin »
- « **Eta zure izpirituarekin »**
« Gora bihotzak »
- « **Jaunari dauzkagu »**
« Eskerrak Jaungoikoari »
- « **Egoki da eta zuzen »**




Sanctus

Jainkoak « saindu » bilakatzera deitzen gaitu. Aingeru eta saindu guziekin goresten dugu.

Saindu, Saindu, Saindu !

Diren guzien Jainko Jauna !
Zeru lurrak beterik dauzka zure distirak
Hozana zeru gorenetan.
Benedikatua Jaunaren izenean datorrena.
Hozana zeru gorenetan.





Jesus-ek berak Ortzegun Sainduz, azken afarian, erran hitzak eta egintzak dira errepikatzen.



Ogiaren kontsekrazioa



“Har zazue eta jan denek huntarik hau nere gorputza baita zuentzat emanen dena ”




Arnoaren kontsekrazioa



“Har zazue eta edan denek huntarik hau nere odolaren kalitza baita batasun berri eta betikoaren odola zuentzat ixuriko dena ”



Jesus-Ostia begiraten dut
apezak altxatzen duenean
Apezak ostiapekoan
pausatzen du.
Nik burua apaltzen dut,
errespetu eta adorazione
seinale Jaungoikoarentzat



« Hau da sinestearen misterioa »

« Hil eta piztu zirela, Jauna, zu berriz etorri arte, Hau dugu,
hau, berri ona. »



Apezak kalitza altxatzen
duenean begiraten dut
Jesusen odolaren seinale
baita Apezak pausatzen
duenean
ukurtzen naiz Jainkoaren
errespetuz.